

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1904

*1086/2023 EBAZPENA, martxoaren 2koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez erreferente soziosanitarioaren funtzioak hartzen dituen pertsona izendatzen den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integraturako.*

Osasun Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz (2022ko abenduaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, 243. zk.), zeinak gobernantza soziosanitarioaren definizioa eta lurralde-artikulazioa ezartzen baititu eta, bereziki, gobernantza horren antolamendu funtzionala, kontsulta- eta partaidetza-organoetan eta koordinazio soziosanitarioko figuretan oinarrituta.

Ikusirik abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren 2. atala, lurralde-eremuaren eta kudeaketaren araberako koordinazio-figurei dagokienez, eta, bereziki, 45.3 artikulua, erakundea osatzen duten profesionalen plantillatik erreferente soziosanitarioaren figura izendatzea ezartzen duena.

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Luis Ángel Gallo Estrada jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko erreferente soziosanitario izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2023ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea interesdunari eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendari-tzari (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila).

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Barakaldo, 2023ko martxoaren 2a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentea,  
M.<sup>a</sup> LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.